

## Intxaurrondo



## Euskara jalgi hadi plazara

Plazara Goaz Intxaurrondoko Euskara Batzordeak aurten ere begirale taldea osatu du. Taldeak hainbat ekimen antolatu ditu, auzoko haurrei eskolatik kanpo euskaraz aritzeko aukera emateko.

Hilaren 24an, larunbata, egingo dute Plazara Goaz taldeko kideek ikasturte honetako lehen haur jaia. Eguraldi ona eginez gero, haurrak eta begiraleak Bernart Etxepare plazan bilduko dira 16.30etatik aurrera. Eguraldiak lagunduko ez balu, aldiz, Ipar Haizea auzo elkar-tearen egoitzan ipini dute hitzordua, ordu berean. Horrez gain, hilaren 25ean, ikastolako gurasoekin batera, Erniora txangoa antolatu dute. Intxaurrondo ikastolatik irtengo dira 09.00etan.

"Haurrentzat euskarazko guneak sortu edo behinik behin euskaraz aritzeko aisialdi ekitaldiak antolatu nahi ditugu. Ildo horretatik, kultur animazioari buruzko ikaskete-

tan diharduten hainbat lagunekin begirale taldea osatu dugu", adierazi digu Bittor Hidalgo Plazara Goaz taldeko kideak.

Hidalgoren arabera, auzoko haurrek eskolatik kanpo euskaraz aritzeko aukerarik ez dute. "Bada haur txoko bat. Hala ere, gazteleraz baino ez dute lan egiten bertan. Gure ustez, Udalak euskarazko haur txokoa sortu behar luke auzoan. Udalak haur txokoa sortzen ez duen bitarte-

**"Udalak euskarazko haur txokoa sortu behar luke"**

an, gu hutsune hori betetzen saiatuko gara", esan digu Hidalgo.

### Hilean behin haur jaia

Oraingoz ez dute egitarau finkorik egin. Hala ere, hilean behin, haur jaia antolatuko dute. "Horrez gain, gabonetan eta auzoko jaietan beste-lako ekitaldiak egin nahi ditugu. Argi dugu haurrentzako euskarazko ekitaldien eskaintza indartu behar dela auzoan", diosku Hidalgo.

Taldearen diru iturriei dagokienez, berriz, zera esan digu Plazara Goaz taldeko kideak: "iaz dirulaguntza ukatu ziguten, eta aurten ere, Donostia Kulturako kideen ezezkoa jaso dugu. Donostia Kulturako kideekin biltze-

### Ijitoekin bat

Intxaurrondo ikastolak kulturen arteko harremanak sakontzeko egitasmoarekin aurrera darrai. Hil honetan, ijitoen kultura eta bizimodu gertutik ezagutzeko aukera izango dute ikastolako haurrek zein gurasoek. Batetik, ikastolako areto nagusian ijitoei buruzko erakusketa ipini dute. Hilaren 21ean, bestalde, bideoforuma egin zuten. Arazoaren 30ean jai handia egingo dute. Hala ere, hil amaierara arte beste hainbat ekintza egingo dituzte ikastolan: dantza tailerra, merienda, ibilaldiak gurdiz, ipuin saioak eta abar.



ko asmoa dugu dirulaguntza zergatik ez diguten eman jakiteko".

Sosak sosa, dagoeneko ekimenaren alde lan egiteko prest dagoen koadrila polita bildu da auzoan. "Gainera, deialdia zabalik dago euskaraz bizi nahi duen auzotar ororentzat", diosku. Adi, beraz, taldeko kideen deialdiei.